

# Goierriarra

315. zenbakia 2007ko otsailak 9

Sastarri Lan Taldea  
**ATAUNGO  
BIZIERAK  
DVD-an**



## GARBITASUNA ETA DIZDIRA NAGUSI GAINAZALEAN

GARBIKETA ZERBITZU OROKORRA  
BULEGOAK, LANTEGI ETA TAILERRAK, ATARIAK ETA ETXEBIZITZAK,  
BIZILAGUN KOMUNITATEAK, GARAJEAK, ETABAR.  
Zepai, 5A | 20213 Idiazabal Gipuzkoa



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.  
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
 Tel.: 943 653 307  
 Tel. / Fax: 943 650 520  
 E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
 Fax: 943 675 421  
 E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



POLIURETANOZKO LEIHOAK



*Kursal*  
 ZENTRO MEDIKUA  
[www.kursal.es](http://www.kursal.es)

**943 88 22 51**


Garmendia Otaola, 7 - behea  
**BEASAIN**

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

**NOBEDADEA**

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

## BERTSOTAN



Aitzol Barandiaran

## Aldaketa klimatikoa

Noiz ikusi da urtarrileko lehen astetan hain sargori aspaldi gure lur gorrietan tantarik ez da erori, naturak lege arrunta baitu: "txarra jaso, txarra tori". Modako hitza bihurtu dugu "ozono" edo "CO2" gaur hainbeste eta bihar hain gutxi kezkatzen gaituen hori.

Aditu eta ikerlariak baldin badira hitzeko, agur Donosti, adio Zarautz tesiak borobiltzeko. Ipar poloa urtzear dago uren maila hazitzeko hemen eskuak, igurzten gaude poza ez da harritzeko beti izan dugu ilusioa kostaldean bizitzeko.

## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

**Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN**

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

#### Telefonoak:

**Erredakzioa:** 943 16 00 56  
943 88 96 12

**Publizitatea:** 647 319 757

**Harpidetzak:** 902 820 201

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre

**Maketazioa:** Mikel Albisu

**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga  
9. Oñati)

**ISSN:** 1132-0907

**Lege gordailua:** SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

### Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AURKIBIDEA

**4. Iritzia:** Dionisio Amundarain.

**5. Ingurugiro txokoa:** Abere hazkuntzaren itzala ingurumenean.

**6. Euskara txukuntzen:** Bezala, gora eta behera

**8. Kate motzean:** Xabier Collados.

**9. Elkarrizketa:** Antton Irizar eta Xabier Murua, bi hamarkada alkatetzan.

**14. Erreportajea:** Ataungo Sastarri Lan Taldea.

**18. Elkarrizketa:** Unai Urkia eta Olain Irizar arrantzaleak.

**24. Iragarki laburrak.**

**26. Argazki zaharra.**



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

Viceconsejería de Política Lingüística



Dionisio Amundarain

***Haserre jarri  
zaizkigu politiko  
asko Ibarretxe  
inputatu gisa  
deklaratzera  
deitu dutelako.  
Eta manifesta-  
ziorako deia  
egin dute. Neure  
buruari galdera  
egin diot: noiz  
egin dute  
antzekorik  
18/98koen  
kasuan,  
De Juanaren  
kasuan...?***

## Argibide bila

**G**OIERRITARRA aldizkarikoek iritzi-artikula eskatu didate. Ni, berriz, iritzi emateko baino gehiago, iritzia jasotzeko ote nagoen nago. Baina tira. Gezurrak aieratzen hasita, ez dut neuk gezurretan jardun nahi. Beraz, neurri handian azalduko dut iritzia bat, baina irakurleak berak jarri beharko du ageriago.

Madrileko bonba-autoaren kasuan, ETak bi gizon hil ditu, esan digute handik eta hemendik, asperrazteko moduan, irrati-entzuleok sorgor bageunde bezala. Neure buruari galdera egin diot: bonba-abisua ematetik lehertu zenera halako tar-te handia izanik, zer egin zuten segurtasun-arduradunek? ETak hil al zituen bi gizon haiek?

Borobil-borobil esan digute, asperrazteraino, ETak hautsi duela su-etenaren prozesua. Neure buruari galdera egin diot, behin eta berriz: Zein pauso eman du Espainiak ETaren aldetik su-etenak iraun duen bederatzi hilabeteetan? Zein presok jaso du nolabaiteko onurarik denbora luze horretan? Zein onura jaso du Euskal Herriak aldi luze horretan? Euskal Herriaz ari naiz, eta ez halako edo bestelako politikoz.

Ozen eta gora ari zaizkigu esaten politikoa, herriak, gizarteak parte hartu behar duela "bakearen" aldeko prozesua berriro abian jartzeko. Herriak inplikatu behar duela. Neure buruari galdera egin diot. Zertan? Alderdi batek edo bik edo hiruk deitutako manifestaziora joanez? Noiz eskatu zaio euskal herriari iritzia Madrilekin zer-nolako harremanak izateaz? Noiz eskatu zaio herriari iritzia Abiadura Handiko Trenaz? Noiz eskatu zaio herriari iritzia euskararen aldeko aurrekontuaz?

Serio eta haserre jarri zaizkigu politiko asko Ibarretxe inputatu gisa deklaratzera deitu dutelako. Eta manifestaziorako deia egin dute. Neure buruari galdera egin diot: noiz egin dute antzekorik 18/98koen kasuan, De Juanaren kasuan...?

Indarkeriaz ad nauseam ari gara entzututen. Neure buruari galdera egin diot: zein indarkeriaz?, zeinen indarkeriaz? Noiz entzun behar ote dugu estatuaren in-

darkeriaz zerbait esaten? Auzitegira joan eta erdaraz ari beharra ez ote indarkeria? Euskal Herrian abiadura handiko trena jarri ala ez erabakitzeke, Madrilen iritziaren zain egon beharra ez ote indarkeria? Guraso batek semea edo alaba, adiskide batek adiskidea bisitatu ahal izateko, Euskal Herriatik Andaluziara joan behar izatea, ez ote indarkeria?

Demokraziaz ari zaizkigu aho betean. Neure buruari galdera egin diot: zein "demo-s-az", zein herritz ari dira? Nago, Erromatar inperioaren garaian enperadoreak bere burua jainkotzat hartzera herria behartzen zuenaren antzera, politikoei bere burua hartzen dutela herritzat.

Eta biktimez?. Zein biktimaz ari dira? Aipatzen dituztenen kasua latza izanik, horiek bakarrik ote biktima? Bizitza fisikoa kendu diotenak eta haien familiarekoak bakarrik ote biktima? Norbait etxera etorri eta "lasai hitz egin al dezakegu" galdetzen dizula kontuan harturik, ez al zara biktima? NAN agiria nahitaez patrikan erabili beharrean zaudela kontuan izanik, ez al zara biktima? Donostiako udaletxera joan, eta atekoak gaztelan hitz egiteko, esan ez, baizik agintzen dizunean, ez al zara biktima? Etab.

Eta De Juana erdi-libre uztearen alde dagoela esan, bai, baina Ibarretxe inputatu gisa deklaratzera deitu dutelako manifestaziorako deia egin izana ez duela ulertzen esatea, ulertzekoa ote? Ez ulertzeaz eman duen arrazoia ulergarriagoa ote? Hain zuzen, errespetu osoa merezi duen epaileen erakundearen, instituzioaren, kontrako ekintza omen manifestazio-dei hori (ikus 2007-01-26 El Diario Vasco). Eta galdera egin diot neure buruari: Lehendakaria inputatu gisa deklaratzera deitzea, ez ote erakunde baten, instituzio baten kontra joatea? Eta geldi bedi isilik deklaratzera deitu izanaren arrazoia.

Irakurle, zuk esango didazu: gure gizarteko lagin simple bat osatzen duten aipatu horiek buruan izanik, zein iritzi orokor eman nezake? Etorri zait burura zerbait, baina "hago hor kolkotan" esan diot. Esan gabe ere, asmatuko duzu, nik uste.



# kutxa



# Abere hazkuntzaren itzala ingurumenean

Behiek trafikoak baino gehiago poluitzen dutela atmosfera; hori esan omen dute irratian. Egunkarian begiratu, eta bai, han ere antzekoa jartzen du: ganaduak ibilgailuek baino eragin handiagoa duela berotegi-efektuan. Datua nork eman duen ere jartzen du; FAOk, hau da, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak. Iturri fidagarria da, beraz.

Eta bai, datua ere zuzena da. FAOk berak nabarmendu du, gainera. Baina datuaren atzean FAOren txosten sakon bat dago, Livestock's long shadow izenekoa, edo, gutxi gorabehera, gizakiak jateko hazten dituen animalien itzal luzea. Eta hor azaltzen dute, besteak beste, zergatik ondorioztatu duten berotegi-efektuan ganaduak trafikoak baino gehiago eragiten duela.

Erabili duten metodologian, animalia-jatorriko elikagaia lortzeko kate osoan sortzen diren gas-isuriak batu dituzte. Hasteko, kontuan hartu dute pentsuak ekoiztean isuritakoa, eta hor sartu dituzte ongari ki-



mikoen ekoizpena, larreak eta soroak sortzeko baso-soiltzea, eta larreen degradazioa. Gero, abere-hazkundeak berak isuritakoa gehitu dute, aintzat hartuz bai abereen hesteetan sortzen diren gasak bai gorotzak askatutako oxido nitrosoa. Azkenik, animalia-jatorriko produktuak egitean eta garraiatzean sortzen diren isuriak ere batu dituzte.

Baturaren emaitza: berotegi-efektua eragiten duten gas-isuriaren % 18aren erantzulea da abeltzaintzaren sektorea. Eta, FAOren arabera, hori baino gutxia-

go sortzen du garraioak guztira. Zehazki, giza jarduerak sortutako karbono dioxidoaren % 9 sortzen du abeltzaintzak, eta berotegi-efektuan karbono dioxidoak baino gehiago eragiten duten beste gasak are proportzio handiagoan sortzen ditu.

Gas horiek metanoa eta oxido nitrosoa dira. Lehenak karbono dioxidoak baino 23 aldiz eragin handiagoa du berotegi-efektuan, eta oxido nitrosoak, berriz, 296 aldiz handiagoa. Eta ganaduak metano eta oxido nitroso asko sortzen du. FAOk kalkulatu duenez, ganaduaren hesteetan giza jardueretan askatutako metanoaren % 37 sortzen da. Ganadua da, baita ere, oxido nitrosoaren % 65aren jatorria, gehiena gorotzek askatuta.

Testua [www.Zientzia.net](http://www.Zientzia.net) webgunetik hartu da eta bere osotasunean Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkarian duzu.

***Berotegi-efektua eragiten duten gas-isuriaren % 18aren erantzulea da abeltzaintzaren sektorea.***

***Eta, FAOren arabera, hori baino gutxiago sortzen du garraioak guztira.***

## JAKIN BEHARREKOAK

**Armañon parke naturala.** Eusko Jaularitzak Armañon parke naturala izendatzea onartu du. Karantza eta Turtzio artean dago, Bizkaiko mendebaldeko muturrean. 2.971 hektareatako azalera izango du. Balio geologiko handiko kobazuloak dauka bertan: "Torca del Carlista"k Europako salarik zabalenetakoa dauka, "Pozalagua" bere estalaktita "excéntrico"engatik da ezaguna eta "Santa Isabel" koban Ferra-saguzar mediterranearrak umetza kolonia nagusia dauka. Saguzar espezia hau goreneko mehatxu kategorian sailkatuta dago.

**Mallorca transgeniko gabe.** "Consell de Mallorca"-k zentsura mozioa onartu du eta Mallorca irla transgeniko gabeko eremua izendatu dute. 172 europar eskualdek osatzen duten zerrendara gehituko da. Eskualde hauetan genetikoki eraldatutako izakiak (OMG) debekatuta edo mugatuta daude.

**Arrantza liberazioak elikadura segurtasuna murriztuko du.** Greenpeacek argitaratu duen azken lanaren, "Trading away our ocean", ondorioetariko bat da. Bestalde, arrantza baliabide gehienak esportaziorako bideratzen badira bertakoentzako arrantza murriztuko da. Era berean piszifaktoretarako irina egiteko erabiliko omen da.

# Bezala, gora eta behera!

Maizpide euskaltegia

Arkumearen  
txerri-txuletak  
nahi ditut.



Ze...  
arrain-zopa  
egiteko?

Astelehena, izugarrizko ajea, eta hori gutxi balitz, euskal taldeek porrot atzoko futbol jardunaldian! Zuzena ote da futbol zaleren batek (futbol-ero, agian?) egindako adierazpen hori? Bada, ez! Zuzena izan dadin **bezala** aditzondoa behar du!

Hori **gutxi balitz bezala**, euskal taldeek porrot egin zuten atzoko futbol jardunaldian!

Ikus dezagun beste adibide bat: *Esandako guztia gutxi balitz bezala* (EDO: *esandako guztia nahikoa ez dela*), *paper pila bat eskuratu dio*.

Dena den, kontuz! **Gutxi balitz** forma, **bezala** gabe, erabil daiteke, baina beste egoera batean, beste zerbait adierazi nahi dugunean. Adibidea:

*Hori gutxi balitz, beste bat erosiko genioke!*

Eta zorioneko **bezala** honek ematen dizkigun bu-ruhaustea gutxi izango balira bezala, ohiko beste akats batzuen berri ere emango dugu. Ikus itzazue adibideak:

- Txerri txuletak nahi ditut!

- Zenbat bezala?

- Gure alaba Parisera joan da, "au-pair"!

- Neskame bezala?

Esan beharrik ere ez dago galdera horietako **bezala** hori sobera dagoela! Gaztelaniaren eraginez egiten den akats hori maiz antzean entzuten baduzue, badakizue, zuzendu!

## Zuzendu, behar izanez gero...

1. Entzun, Eneko! Eman dizudan 2 euroko txanpona gutxi balitz, bueltan etorri gehiagoren bila!
2. Tarragonako Gimnastic taldea Reala bezala dabil, oso pattal!
3. Kaleko bizimoduaz nazkatuta, nahiago omen du Aralarren artzain bezala.
4. Tomate hauetatik zenbat bezala jarriko dizut?
5. Palestinarren egoera oso larria da. Ia baliabiderik ez izatea gutxi balitz, kanpoko diru-laguntzarik gabe geratu dira.

Erantzuna: azken hiruak gaizki daude.

  
**GUKlan**  
BAINUKO OSAGIAK  
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933  
Nafarroa Etorbidea, 27  
**BEASAIN**

Tailerra:  
Okorro, 6  
**ORDIZIA**

**VOLVO**




**ANZIZAR, S. A.**



**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**  
[www.anzizar.com](http://www.anzizar.com) ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48





©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



#### ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

## SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako  
gida-baimenak

Aita Urdaneta  
ORDIZIA  
☎ 943 88 72 76



**aulia**  
TOLARE  
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea  
LEGORRETA



# ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com)

[www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



# GAES

Entzumen Zentruak

*Etor zaitez!*  
**ENTZUMENAREN  
AZTERKETA DOAN!**

ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA, ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO



Nafarroa Etorbidea, 13 • Tel.: 943 80 55 89 • BEASAIN



### Noiztik zabilta Alemania aldean?

2005etik. Urtarrilaren 10ean iritsi nintzen; bi urte bete berri ditut. Gogoratzen naiz, iritsi nintzenean, 10 gradu egiten zuela gaueko hamaiketan, eta pentsatu nuen "ba ez du hainbeste hotzik egiten". Oker nengoen.

### Nolatan joan zinen?

ETBn nenbilen lanean eta kontratua bukatu zitzaidan. 2 urte neramatzen alemaniera ikasten eta Berlinera joatea okurrirru zitzaidan, bertatik ETBrentzako lan egitera eta alemaniera ikastera. Telebistakoekin hitz egin nuen eta joateko esan zidaten.

### Alemaniera hemen ikasi al zenuen?

Bai, Peter Wyss-ekin, Goierrin bizi den suitzar batekin. Lehenengo Ordizian eta gero Beasainen.

### Erraza egin al zaizu egokitzea?

Ez, baina ari naiz. Gustoko jendea aurkitzea kostatzen da gehiena eta hemengoak nolakoak diren koturatzea eta gauzek nola funtzionatzen duten. Behin lortutakoan, oso gustora bizi daiteke hemen: Berlin oso hiri erakaragarria da..., eta modan jartzen ari da.

### Zein izaten da korrespontsal baten lana?

Ba, bizi den herrialdean gertatzen denaren gainean egon eta interesatzen diren gaiei buruzko berriak edo erreportajeak prestatzea. Edo irratiarako kronikak. Batzuetan denbora gutxian lan asko egitea tokatzen da eta, besteetan, ez dago ia lanik. Oso irregularra da.

### Batez ere zein motatako gaiak lantzen dituzu?

Denetarik, kirolak izan ezik.

### Zer moduzko herrialdea da Alemania lanerako?

Grabatzeko eta elkarrizketak lortzeko formalitate asko bete behar dira; ez dago inprobisatzerik. Baina gero oso fidagarriak dira. Topikoa ez da okerra.

### Zer moduz hartu zaituzte Alemanian?

Berlindarrak ez dira bereziki sinpatikoak -Alemanian bertan ere nahiko fama txarra dute-, baina moldatzen naiz. Gainera atzeritar asko dago hemen.

### Zer egin zaizu gogorrena?

Lagunak eta jende guztia atzean uztea. Eta hizkuntza; hasieran orain baino gehiago.

### Kazetari bezala gustura al zabilta Alemanian?

Bai, gauza asko gertatzen ari dira herrialde honetan eta ekialdeko Europara ere joan naiz tarteka. Korrespontsal iza-

“Korrespontsal izateak daukan ona da, bizi zaren herrialdeko gai interesgarri guztiak zuk egiten dituzula”

teak daukan ona da, bizi zaren herrialdeko gai interesgarri guztiak zuk egiten dituzula.

### Eta pertsonalki?

Esperientzia oso ona izaten ari da, oso gomendagarria.

### Noiz arte ikusiko zaitugu Alemaniako berri ematen?

Telebistak nahi duen bitartean. Ni momentuz pozik nago.

### Nolako da Alemania?

Bu! Zaila erantzutea. Deigarria egiten zait, hemen arauak inork ez dituela zalantzan jartzen: bete egiten dira. Eta jendeak garraio publikoa erabiltzen du edo bizikleta, -10 gradu egiten duenean ere. Ah!, eta etxeetan ez dute pertsianarik!

### Eta alemaniarrek?

Serioak, zorrotzak eta oso ordenatuak: aisialdia ere planeatzen dute. Kontzientzia ekologiko handia dute eta natura maite dute: eguzki izpiren bat azaltzen den bakoitzean parkeak jendez betetzen dira.

### Saltxitxak eta garagardoa esaten den bezain onak al dira Alemanian?

Saltxitxak, bai. Garagardoa ere ba omen da, baina nik ez dut edaten, beraz ezin dut esan.

### Zer eramango zenuke Euskal Herritik?

Lagunak.

### Eta Alemaniatik zer ekarriko zenuke?

Bakea. Eta soldatak.

### Alemaniatik nola ikusten da Euskal Herria?

Gehienek terrorismoarekin lotzen dute, baina beste askori euskal kulturak eta euskarak ere jakinmin handia pizten diete, batez ere euskarak.

### Kazetari bezala, zein da zure ametsa?

Ez dakit, beharbada erreportaje luzeagoak egitea. Eta hobetzea.

### Zein albiste gustatuko litzaizuke ematea?

Euskal Herrian, ETak behingoz armak utzi dituela eta, Alemanian, neonaziak betirako desagertu direla.





# Bi hamarkada alkatetzan

*Gabiriako Xabier Muruak 24 urte egingo ditu alkatetzan eta Idiazabalgo Antton Irizarrek, 20*

**G**izartearen aldaketa gertutik ezagutu eta bizi izan dute

Xabier Murua Gabiriako alkateak eta Antton Irizar Idiazabalgo alkateak. Mentalitate eta kontzeptu aldaketak. 24 urte daramazki herriko alkate gabiriarrak eta 20 berriz idiazabaldearrek. Maiatzean izango diren udal hauteskundeetan, berriz alkatetzarako aurkeztu ala ez, bukaera iritsi zaiela uste dute. Gabirian, ordezkoa, lotuta omen daukate; Idiazabalen oraindik ez. Bere ohiko lantokira, CAFera, itzultzeko irrikan badago ere, Antton Irizarrek azaldu duenez, “publikoki esanda daukat ez naizela gehiago baina ez dago ezer lotuta. Hilabete batzutan jarrai dezaket baina nirea joan da”. 20 urte hauen errepa-soa egin digute Goierriko alkate beterranoek.

**Gabirian**  
 (Alegia auzoan)  
 Ormaiztegiako Irizarren parean  
**Eraikuntzan**  
 Etxebizitza bikainak:  
 sotoa, behe solairua, 1. solairua  
 3 logela, 3 bainugela, terrazak,  
 lorategi zabala, txokoa, garajea...  
 Eraikuntza berritzailea eta  
 lehen mailako materialak  
**ZUZENEKO SALMENTA**  


Bizitza bakarreko  
**6** etxebizitza,  
 binakako blokeetan  
  
**INFORMAZIOA ETA SALMENTA:**  
 943 16 10 32 - 652 77 57 41

**xetai**  
 www.xetai.net  
 Armairuak · Altxariak  
 Osagarriak  
 Tel.: 943 88 43 84 Oriamendi, 30 BEASAIN



**Alkate izendatu eta udaletxera joandakoan zer aurkitu zenuten? Udaletxeko funtzionamendu asko aldatu al da?**

**Murua:** Orain 20 urte udaletxeetan ez zegoen ezer eginda.

**Irizar:** Astean bi aldiz etortzen zen idazkaria, langileen egoera ere oso prekarioa zen.

**Murua:** Guk ere hiru herriekin batera geneukan idazkaria, Ormaiztegi, Ezkio-Itsaso eta Gabiriarekin. Gero Ezkiorekin batera gelditu ginen. Gero Gabiriakoa bakarrik.

**Irizar:** Aurreneko aldaketa udaletxea bera izan zen, udaletxearen funtzionamendua bera. Udaletxean ni modu akzidentalean sartu nintzen, EAJ eta EA alderdiaren eszizio garaia zen, esperientziarik ez neukan. Diputaziora bilera batera joan ginen, guk deitutakoa izan zen gainera, hirigintzako bilera bat zen eta nik ez nuen hitzik ere egin. Niretzat txinoz hizketan ari ziren. Lehen Diputazioak ere beste era batera funtzionatzaren zuen, dirua atzeko atetik ateratzen zen. Gaur egun fondo forala dago eta biztanleko hainbesteko bat ematen da.

**Murua:** Garai hartan astero-astero joaten ginen Diputaziora, negar puska bat egin eta horrela lortzen zen dirua. Urte onak ziren haiek: kontzertu ekonomikoa martxan jarria zen.

**Irizar:** Zergarik ez zen kobratzen, zaborrarena, kottxearena...

**Murua:** Guk ez geneukan zaborra biltzeko sistemarik.

**Irizar:** Garai batean, ni udaletxean sartuta ala ez, baina astoa gurdiaekin pasatzen zen zaborra biltzera.

**Murua:** Gabirian hori ere ez zegoen. Gero hasi zen, Idiazabalgo bat, Mujika, kamioiarekin astean behin zaborra biltzen. 3-4 urtetan egon ginen sistema horrekin. Urtean 200.000 pezeta



## Ongizatea

**Irizar:** Ongizate kontzeptu hori ere berria da, 10-15 urte izango ditu. Hasiera batean udaletxean, bigarren mailako gaia zen. Kontzientzia horrekin inor ez zen zinegotzi izango. Hori ere aldatu da. Momentu honetan diru asko ari gara gastatzen ongizate arloan. Orain txer furgoneta erostera goaz, eguneko zentroko joan-etorrietarako. Orain arte Gurutze Gorriarekin ibili gara baina beti gorabeheren bat izaten da. Etxez etxekoa ere hor dago: garai batean jende bati esan udaletxeak pertsona bat bidali behar zizula, kanpotik, etxeko lanak egitera?

**Murua:** Guk berdin samar daukagu. Etxez etxekoa hor egon da baina lehen segurorik gabe zeuden, orduka ordaintzen zitzaaien...

**Irizar:** Gizarte laguntzailearen lana ikaragarri hazi da. Kanpoko jende bat etortzen hasi zaigu eta lehenengo bisita Gizarte laguntzailearen bulegora egiten dute.

**Murua:** Guk bageneukan emakume bat Gabirian, Eskalea esaten genion, gaizki jarri zenean, Beasaingo egoitzara ekarri genuen, udalak ordainduta, Diputazioaren laguntzatxo batekin. Ikaragarri eskertu zuen emakume hark.

**Irizar:** Datu bat emango dizuet: Segurako erresidentzian 13 idiazabaldar ezagututa nago ni, orain dela 10-15 urte. Momentu honetan 2 daude. Aldaketa eman da. Etxez etxeko laguntzarekin, eguneko zentroarekin... norbere etxean bizitzeko aukera ematen da.

gastatzen genituen, herritarrei ez zitzaaien kobratzen.

**Irizar:** Lehen etxe guztietan ekonomiak izaten ziren eta han erretzen zen dena. Zaborra ere askoz gutxiago sortzen zen. Sasieta geroago sortu zen.

**Murua:** Lana egiteko gogoa zen handia, orain nekatuta gaude pixka bat baino.

**Irizar:** Gainera kontzientzia finkatuta, diru pilo bat etorri zen, eta jendearen nahia edo borondatea ere askoz ere gehiago zen. Auzolan asko egiten genituen lehen. **Eskualde mailako egiturarik ez zen izango.**

**Murua:** Bi edo hiru herriko elkarte txikiren bat, idazkari elkarbanatzeko... eta beste-

rik ez.

**Irizar:** Mankomunatuta bezala funtzionatzen zuena, Goierriko Eskola izango zen. Ezer ez zegoen.

**Murua:** Gabirian oraindik ere eusten diogu zerbait auzolanari. Lehen dena auzolanean egiten zen. Udaletxeak gosaria prestatzen zuen eta han elkartzen ginen. Guk oraindik ere, urtero, udaletxeko zinegotziok kimatzen ditugu arbolak. Bazkaria egiten dugu ondoren. Alde batekoak edo beste-koak izan auzolanean oso ondo moldatu izan gara Gabirian.

**Zuek biok, EA alderdiko alkateak zarete. Azkene-ko legegintzaldian EAJ-**

**rekin batera aurkeztu zarete baina azkenaldian makina bat zalaparta badabil EA bakarrik aurkeztuko den...**

**Irizar:** Gu aparte mantentzen gara. Gu atipikoak gara: alderdi batean gaude baina ez gara bilera batera ere joaten. Goitik etorri daitezkeen ordena eta aholkuetatik aparte ibiltzen naiz ni. Etapa bukaeran egonda gainera...

**Murua:** Gabirian jendea, elkarrekin joatekoaren aldekoak gara.

**Egindako lehenengo lanak gogoratzen al dituzue?**

**Irizar:** Bariantea orduantxe eginda zegoen, lehenengo



obratariko bat izango zen, Kale Nagusia, kale izatea bihurtzea. Bidea estutu genuen eta izugarrizko polemika izan zen. Zirkulazioa gero eta gehiago eta kalea estutu? Orain onartuta dauzkagun kontzeptuak dira baina garai hartan ez. Gogoratzzen naiz oso gaizki pasatu nuela. Arkitektuak planteatu eta konfiatu egiten duzu, gehiago jakingo duelakoan, errazegi baietz esan ote genion edo kezka zegoen. Udaletxe barruan ere oposizioa egon zen, ezin onartuta. 90ean edo 91n izango zen. Gaur egun erdia oinezkoentzako jartzea eta paso zebra altu horiek asimilatuta dauzkagun bezala, orduan ez zen horrelakorik.

**Murua:** Gabiria oso herri zabala izanik, herrigunea oso txikia dauka. Gabirian izan genuen lehenengo arazoa baserrietako bideak izan ziren. Bide denak berritu genituen. Uholdeak izan ziren eta nahikoa diru iritsi zitzaigun. Garai hartako 200 milioi pezetak gastatu genituen kaminoetan. Herri kaskoa ere txukundu genuen beste pixka bat.

**Irizar:** Gaur egun, gastu arruntak asko gehitu zaigu. Egindako obra guztiek gero mantenimendua daukate. Aurrekontuaren zati handiena horrek hartzen du. 2007ko aurrekontuak onartu ditugu eta 210 milioi pezetatik 55 milioi gelditu zaizkigu gauza berrietarako. Beste guztiak gastu arruntak dira.

**Murua:** Eta tarte hori gero eta txikiagoa izango da, gero eta elkarte gehiagotan sartzen ari gara eta.

**Herritarren jarrera alda-  
tu al da? Orain pasiboago-  
ak al gara?**

**Irizar:** Politikak nik uste dut horretan eragina izan duela. Politikan garai batean denok anti frankistak ginen. Ikastolen aldeko festak antolatzen genituen, tabernak jarri festetan eta ahal genuena egiten genuen.

Xabier Murua

“  
**Beldur gara,  
etxe berrie-  
kin,  
Gabiriak beti izan  
duen herri giro hori  
galduko ote duen”**



**Murua:** Gabirian politika ez da izan arazoa. Udalak azpiegitura asko ditu gaur egun eta udaletxeak gauza asko egin egiten ditu.

**Irizar:** Politikak zerikusia izan du baina erosotasunak ere bai. Gero eta hobeto gauden eran, gero eta hobeto bizi nahi dugu, lasaiago, gero eta konplikazio gutxiago bilatzen ditugu.

**Murua:** Bai, horrek Gabirian kalte gehiago ekarri du, politikak baino. Auzolanera jendea gerturatzen da oraindik, beti egon da auzolaneko filosofia.

**Irizar:** Guk filosofia hori Urtsuaranen daukagu. Auzo guztia elkartzen da festak antolatzeko.

**Politika aipatu duzue. 20 urtean zerbait aldatu al**



Antton Irizar

“  
**Etxebizitza gaia  
niretzat berria da.  
Orain dela 20 urte  
etxebizitza ez zen  
arazo”**

**da? Hobera ala okerrera egin du?**

**Murua:** Gu ez gara politikan gehiegi sartzen baina, aldatu, gutxi egin da. Jende bat nahiko baikorra da baina nik egoera nahiko latza ikusten dut. Nik gaur egun ez dut liderazgo bat ikusten, euskaldun pentsakera batean. Autodeterminazioa esaten ari gara. Niri hitz hori nahikoa gutxi gustatzen zait, niri burujabetza gehiago gustatzen zait.

**Irizar:** Etorkizunari begira ez naiz baikorregia. Herri bezala, arrisku handiak dauzkagu.

**Murua:** Erraz ari gara errua Madrilgo Gobernuari botatzzen baina geu ezin konpondu gabiltza.

**Irizar:** Indarkeria hain da

determinatzailea! Galtzen ari gara garai batean ETAK berak hartu zuen balorea. Irabazita geneukan kapital politikoa ikaragarria zen. Bere garaian hau gelditzen asmatu bagenu, urrezko hizkiekin idatziko genuke, frakismoaren aurka, herri bezala egin zena. Nik uste dut gaur egun gainera, denek esaten dutela honekin bukatu beharra dagoela. Orain nire ustez dena galdu dugu eta niri izugarrizko beldurra ematen dit, etorkizunari begira, etorkinak eta datorren globalizazio horrek, gure nortasuna gordezzen jakin al dugu?

**Murua:** Ez da hori bakarrik. Nik uste etorkinak etorriagatik, euskaldunok bertakokok helburu jator bat eduki-ko bagenu!

**Irizar:** Aurreko batean, Maria Angeles Iztueta Hezkuntza sailburu ohiak, esaten zuen, 2015ean edo, eskolaratutako haurren %20-a etorkinak izango direla. Horiek euskalduntzeko eta Euskal Herriraganatzeko gai izango gara? Garen bezalakoak izanda, dauzkagun ohiturak, mundu guztiari gustatzen zaizkionak, daukagun inguruarekin, daukagun aberastasunarekin.. nahikoa izan behar litzateke kanpoko jendea erakartzeko eta ulertzeko gure nahiak logikoak direla.

**Murua:** Hori hala da. Guk azken batean European bizi behar dugu, Espainiako Gobernuarekin, elkarren errespetoan, elkarrekin joan behar dugu, bakoitzak berea defendituz. Hori gustatzen zait niri.

**Euskararen gaia ere hor dago. Idiazabalen Euskarra plana onartu berria da...**

**Irizar:** Ni egia esanda ez nago gai horretan oso sartuta, Kulturako zinegotziak darama gai hori eta. Plan horiek oso ondo daude. Baina plan estrategiko potolo horiek, ez euskararenak bakarrik, hausnarketa ho-



## Etxebizitza

**Murua:** Gabirian gauza bat gertatu da: lehen bakoitzak bere lursailetan etxeak egiten zituen. Orain dela 10-15 urtera arte baserriar gehienek seme-alabek etxeak egin zituzten. Gero etorri ziren legeak, etxeak herrigunean egin behar zirela. Gabirian kasko inguruan oso etxe gutxi zeuden eta jendeak alde egin zuen. Biztanle kopuruak behera egin zuen nabarmen eta kezkatuta geunden. Orain dela 4-5 urte arau subsidiario berriak egin genituen. Baina orain beste kezka bat daukagu: Gabiria 30-40 etxe martxan jartzeko bidean dira, eta horiek betez gero, jende gehiegi izango ote garen eta Gabiriak beti izan duen herri giro hori galduko ote den beldurra. Azkenaldian 400-500 biztanle tartean ibili gara. Orain 100 bat lagun gehiago izatea, eta kanpotarrak, integratuko dira beharbada, baina... Agenda 21eko bileratan, Gabiriak 600 biztanle gehiago ez dituela behar esaten zuen jendeak. Lehen herritik alde egin zuen jende asko itzultzen ari da.

**Irizar:** Etxebizitzaren gaia niretzat gauza berria da. Orain dela 20 urte niretzat ez zegoen etxebizitza arazorik. Kontratista batek etxebizitzak egiten zituen. Dena aldatu da, jendearen erantzuna ere bai. Idiazabalen, herrigunean dauden etxeen erdiak, kooperatiban egindako etxeak dira. Orain administrazioak egin beharreko lana bezala ikusten da. Kooperatibaren kontzeptua bukatu egin da. Etxebizitzaren arazoa badago baina gizarteak arazo hori beste era batera ere soluzionatu du orain dela urte batzuk arte. Orduan ere arazoak izango zituzten eta orain ere zergatik ez, batzuk elkartu, lursaila erosi, proiektua eta etxea egin. Nik gaur egun ez dut horrelako ekimenik ikusten. Orain 20 udaletxe batean sartzen zenak, etxebizitza ez zuen arazo. Eta horrelako beste gai bat, ongizatea da.

**Murua:** Lehen baserrietan 2 edo 3 belaunaldiko familiak asko ziren.

**Irizar:** Arau urbanistikoak orain dela 20 urte onartutakoak dira. Orain berritzera goaz. Arkitektoak esan zidan lehengo batean, arau urbanistikoak onartu zirenean, etxe bakoitzean, batz bestea, 3,5 lagun bizi zirela. Gaur egun 2,5ra jaitsi da. Etxebizitza arazoa ere sortu da, indibidualki bizitzeko joera datorrelako. Jende asko bizi da bakarrik. Garai batean bakarrik bizi zena nahikoa pertsona arraroa zen. Gu herrian etxebizitza tasatuak bultzatzen ari gara. Gure egoera sozioekonomikoa ez zait iruditzen denik Babes Ofizialeko etxebizitzetan sartzekoa. Guri jendeak alde egin digu promoziotik garestiagoetara joateko. 42 etxe promozioa egiten ari gara. Garestiena, duplexa, 60 metroko terrazarekin, 42 milioi pezeta balio du eta merkeenak, 2 logelako apartamentua, 22.750.000 pezeta. Klausula bat bakarrik daukate, 10 urtean ezin dela saldu.

**Murua:** Guk Gabirian hori hiru etxebizitzekin egin dugu baina Gabirian egiten ari diren etxebizitzak libreak dira, 70-80 milioi pezetakoak. Herriko gazte batentzako oso zaila da. Etxe horiekin kanpoko jendea ekartzen ari gara, eorsteo ahalmen<sup>0</sup> zehatz batekin, eta herriko gazteek oso zaila daukate. Gabirian beste arazo bat daukagu: 300 metroko baserri bateko jendea 60 metroko pisu batean sartuko zenuke? Ezinezkoa da. Etxe handiarekin ohituta daude eta gu orain egiten ari garenak 120 metrokoak dira eta txikiak direla irudituta daude.

riek... nik ez daukat sinismen gehiegirik. CAFen oso gustura hartu nuen parte euskalduntzeko planean. Orain berriz CAF-era joaten naizenean antzera aurkituko dut. Baina adi, CAFen beti errua eskararik ez dakitenei botatzen diegu. Baina euskaldun zaharrok izugarizko papera daukagu horretan. Esan iezaiozu 40-50 urteko bati, euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez daukanari, euskaraz hitz egiten hasi behar duela! Baina euskaldun zaharrek ere ahalegina egin behar du. Hika ezin da hitz egin, hitzak jan ere ez... eta hori guretzat ere ahalegina da. Orduan, paperean gelditzen gara. Baina beti gelditzen da alde positibo bat. Udaletxean dena euskaraz funtzionatzen dugu. Guk arazoren bat edukitzen dugu idatziren bat euskara hutsean bidaltzen dugulako eta erdaraz bidaltzeko eskatzen digutelako. Hori ez da nire meritua, hori idazkariarena eta langileena da.

**Murua:** Gabirian ez daukagu arazorik. Bik izan ezik, oso helduak, denok euskaraz dakigu. Idatzi guztiak euskaraz egiten ditugu, baina kanpora bidali beharrekoak bi hizkuntzatan bidaltzen ditugu. Familia bakarri bidaltzen dizkiegu oharrak gazteleraz.

**Irizar:** Guk geuk dena erdaraz ikasi dugu eta euskaraz hitz egiteagatik zigortu gaituzte. Orain Aldaize, GOIERRITARRA eta Hitza direla, gu eskola zaharrekoak, ohitu gara euskaraz irakurtzen, zahartuta gero. Nik 15 urterekin ez nuen ezer euskaraz irakurri. Hori oso ona da: herritarrek, edo herritar zati handi batek, hortxe dauzka merkatuan material hori dena, lehen ez zegoe-na. Illati lan asko egiten ari da, aldzikari dotorea argitaratzen du.

**Murua:** Nik horretan ez dut arazorik ikusten: euskarak iraungo du.



# Di-da

**Herrian batere aldatu ez dena:**

**Murua:** Herriaren alde egiteko gogoia ez da batere aldatu.

**Irizar:** Idiazabalen herri ikuspegia ez da aldatu.

**Eta gehien aldatu dena:**

**Xabier:** Herriko bizitza kalitatea izugarri aldatu da. Kalitatea esatean, bertako jendearen bizitza, komunikazio bidea... baserriak berritu dira...

**Irizar:** Herriaren itxura dena aldatu da: industria guneak aldatu dira, lehen fabrika bakarra geneukan eta orain mordoxka bat baditugu, herri ingurua aldatu da, ekipamenduak...

**Egin duzuenarekin, gusturen zerekin gelditu zarate?**

**Murua:** Herri mailako euskal giro, elkarte giro horrekin nahikoa gustura nago, nahiko herri elkartua da Gabiria. Obrak garrantzitsua dira baina horri garrantzia handia ematen diot.

**Irizar:** Herriaren esku jarri diren ekipamenduak. Bat esan behar baldin bada, herri gunea, egokitzea, berritzea, edo lasaitzea.

**Inoiz ahaztuko ez duzuen eguna?**

**Murua:** Alkate izateari uzten diodana, hori seguru.

**Irizar:** Nik alderantziz; neure burua ez nuen ikusten eta alkate izendatu ninduten eguna.

**Zerbaitekin damutu zarete?**

**Murua:** Gauza askorekin baina uste dut galdera batean ez dagoela erantzuterik. Damutu ez dakit, baina hobeto egin zitekeela bai, askotan ez intentzio txarrekin egin direlako, baina ikasi egiten da.

**Irizar:** Urteekin esperientzia hartzen da eta gauza asko gaur egun ezberdin egingo nituzke. Baina gauza bat esateko... Beharbada tontakeria bat da, oso gauza zehatza da: Kale Nagusia egin diren etxeek portxerik ez edukitzea, Itsasondón eta Ataunen bezala. Niri portxea asko gustatzen zait, eguraldi txarrekin.

**Zerk kendu dizue loa?**

**Murua:** Niri egia esanda oso gauza gutxi. Gainera gauean ondo lo egin eta egunero ordubeteko siesta.

**Irizar:** Nik gezurra esango nuke zerbaitekin loa kendu dila esango banu. Alde horretatik, oso erraz deskonektatzen dut. Dena apuntatzeko ohitura daukat eta ahaztu egiten naiz.

**Hunkitu zaituztena?**

**Murua:** Gabirian, azkeneko hiru urteetako Aberri Egunean, herrian biltzen den jendeak. Iaz, gainera, 100 urte betetzen zituen abertzalea ere hantxe zegoen ospatzen.

**Irizar:** Bat ez nuke esango, emozio txiki asko izan dira. Egindako lana goraiatuz egiten diren komentariotxo horiek...

**Murua:** Udalak jende askori lagundu izan dio eta esker onak jasotzea sekula ahazten ez dena da.



**Zenbat aldiz esan duzue ez zarela berriz alkate izango?**

**Murua:** Ez dut esan alkate ez naizela izango baina berriz alkate ez nukeela izan nahiko, pare bat aldiz bai.

**Irizar:** Nik apustuak galdu ditut gai horrekin. Nik esaten nuenean, jendeak ez zuen sinistuko baina nik benetan esaten nuen. Nola halako saiakerak egin izan ditugu hori horrela gertatzeko baina gorabehera asko izaten dira eta berriz ere aurkeztu egin naiz. Bi edo hiru legegintzalditan esan dut ez naizela aurkeztuko eta segi egin dut.

**Murua:** Nik beti esan dut ez nukeela jarraituko baina ez da lortu. Oraingo honetan uste dut hori lotuko dela.

**Irizar:** Nik publikoki ere esan dut ez naizela joan behar baina oraindik nola ez daukagun ezer lotuta.

**Alkate izan gabe, etsiko al duzue?**

**Murua:** Ni ehiztari amorratua naiz eta uste dut etsiko diodala. Ehizerako denbora hartu eta... bai etsiko diot. Ni gustura joaten naiz baina gero eta gehiago kostatzen zait bileretara joatea.

**Irizar:** Ni ere nekatuta nago. Jende askok esaten dit ea etsiko dudana. Ez dakit erantzuten diet, jubilatzea bezalako zerbaite izango dela pentsatzen dut. Baina ni komentzituta nago etsiko dudala. Dena den, nik batzorderen batean jarraitzeko asmoa badaukat.

**Murua:** Nik ez. Baina horrek ez du esan nahi bileraren batzutura joango ez naizenik.

**Irizar:** Nik gaztaren gaian lagun handiak egiten ditut eta bat-batean hori dena uztea ere... batzorderen batean parte hartzea pentsatua daukat eta ez nuke arazorik izango.

**Hurrengo alkateari zein aholku emango zenieke?**

**Murua:** Herri elkartu bat edukitzea.

**Irizar:** Irekia izatea, hori beharrezkoa da.

**Murua:** Hori gabe ez dago ezer: herri elkartu bat edukitzea eta irekia izatea.

**Irizar:** Entzuten jakitea, denei entzutea.

**PSIKOLOGI KLINIKOA**

 **Jose Ramon Pato Prieto**  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 420/01

**AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041**  
**JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN**

Helduen,  
umeen,  
bikoteen eta  
sexologi  
tratamenduak

**Arriak parrilan**

☎ 943 65 21 76

**ABALTZISKETA**

**ZALBIDE**

**TOLARE  
SAGARDOTEGIA**





## Ataungo Sastarri Lan Taldeak aurkeztuta...



# Herri baten bizierak eta ohiturak, DVD-an

**D**uela 100 urte eta gehiagoko kontuak On Joxemiel Barandiaranek eta On Juan Arinek idatziz, liburuetan bildu zituzten bezala, garai berriagoak dvd-an biltzen ari da Sastarri Lan Tal-


dea. Besteak beste, Ramon Arza eta Txema Zubizarreta ari dira lan horretan eta adierazitakoaren arabera, "orain da garaia herri bateko bizierak eta ohiturak biltzeko, urte gutxian galdu egin baitaitezke".



**Iñausti**  
Hertz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28



**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94  
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

**IÑAKI ARIN**  
Aseguruak



☎ 943 888 702  
Oriako Pasealekua, 20  
B E A S A I N





*Dvd-en aurkezpena protagonisten aurrean egin zuten Sastarri Lan Taldekoek, 2006ko apirilaren 29an, Aiako elkartearen.*

## Protagonistak gustura

Dvd-etan azaltzen diren protagonistak, eurek izan dute, primizia. "Lehenengo beraiei erakutsi nahi izan diegu, beraiek direlako protagonistak. Guk bildu egiten dugu. Beraiek egongo ez balira, gure lanak zentzurik ez du", adierazi du Txema Zubizarretak. "Afaritxo bat egin genuen, orain arte egindako materiala txukundu eta erakusteko. Oso gustura egon ziren eta egon ginen. Horren ondorenean, beste jende bat ere prestatu da beste bizi-erataz azaltzeko. Guretzat pozgarria izan da hori. Poz handiak ematen dituen lana da: protagonistak beraiek ikusi eta pozik sentiaraztea", gaineratu du Ramon Arzak.

Ramon Arza ataundarra, orain dela 20 bat urte hasi zen bideo kamerarekin, Atauni eta ataundarrei buruzko hainbat material biltzen eta artxiboa osatzen. "Jaso eta jaso. Gure idea ez da, batzuenala hala izango da beharbada, artxibo pertso-

nala gizontzea. Material horri eta berriari itenbidea nola eman, ahalik eta jende gehiengana iritsi testigantza hori... talde bat sortu genuen. Ataunen artxiboa egin behar da artxibo horrek denona izan behar du", zehaztu du Ramon Arzak.

Era horretan, 2005ean Sastarri Lan taldea sortu zuten Ramon Arza ataundarra eta Txema Zubizarretak, duela 12 urte Aiara bizitzera etorri zen azpeitiarrak.

Ataungo bizipenak, bizierak, ohiturak, kontu za-

harrik eta abar biltzea da Sastarri Lan Taldearen helburua. Hori guztia, teknologia berriak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz. Ramon Arzak azaldu duenez, "garai batean idatzi egiten zen eta lanak hor daude bilduta. Baina gaur egun beste formato eragin-korrago bat dago". Txema Zubizarretak gehitu duenez, "ikusentzunezko arloari heldu genion ikusten genuelako gaur egun, ikusentzunezko formatoa dela helburu hori benetan trasladatzeko lanabesik onena. Jendeak erraz kontsumitzen du".

### "Orain da garaia"

On Joxemiel Barandiaranen esatera ospetsuaren jarraitzaileak dira ataundarrak: "Barandiaranek zioen, ez ginateke gure baitakoak izango, guk dakiguna beste-erakundeetara pasatzeko gai izango ez bagina. Azken finean hori da: guri dagokigu orain ikusentzunezko arloari heldu eta gure aurrekoak nola bizi ziren azaltzea. Ikusten genuen gure belaunaldiari zegokiola ikusentzunezkoaren trasbase hori egitea".

Lan hori egiteko leku egokia aurkitu dute Aian. "Kontutan hartu behar da Aia bera dela, oraindik ere nekazal munduari lotuta dagoena, baina hori erabat galtzeaz dago. Guk zoritxarrez galtzen ikusiko dugu. Belarra kablez botatzen da oraindik Aian. Aiako umeek


**mazda**

☎ 943 889 296  
 Faxe: 943 887 952  
 N-1 errep. 419 Kma  
 BEASAIN

**Bikar, S. A.**




**Zunzunegi**  
*Oinetakoak*

Hirigoien, 8A LAZKAO  
 943 087 913

San Inazio, 14 BEASAIN  
 ☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
 ☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
 ☎ 943 650 239

*Lirain*

**Lurrindegia eta opari gaiak**



*Urte asko daramazkite Ramon Arzak eta Txema Zubizarretak ikusentzunezkoaren arloan lanean.*

## Herriarena herriarentzat

Ramon Arza eta Txema Zubizarreta, garai bateko On Joxemiel Barandiaranen eta On Juan Arinen liburuak eta aur egungo dvd-ak dituztela, etorri dira hitzordura. “Garai ezberdinetako materiala da, ataundarrek egindakoa. Gu egiten ari garena, beste garai bateko bilketa bat izango da, hauen antzekoa, baina beste formato batean”, diote.

On Joxemiel Barandiaranek zioen esaldietariko bat, herritik jasotzen dena herriari itzuli behar zaiola, aintzat hartuta ari dira lanean. “Hori da. On Joxemielek sarritan egoteko zortea eduki nuen eta kezka bazuen, aurrera begira, lan honi norbaitek helduko ote zion. Guk beste garai bat jasoko dugu eta garai hori ere jaso egin behar da”. On Joxemielek berak, hainbat filmaketa ere eginak zituen 1940. urte inguruan.

Ramon Arzak, On Joxemielek zuen kezkarri heldu eta irudiak eta hitzak biltzen ditu. “Ikusgarria zen harekin hitz egitea. Aurreneko alditan ez zitzaion ondo ulertzen, oso bixkor hitz egiten zuen eta, baina hitz egitea asko gustatzen zitzaion. Zuk kezka azalduz gero, edo galderak egin... ikusgarria zen. Gu ez gara bere oinetara iritsiko”.

Txema Zubizarretak gogoratu duenez, On Joxemielen Pilar ilobarekin egindako elkarrizketa ere badaukate grabatuta. “Hori ere, bakarra izango da eta azkena, gaur egun ez baita gauza. On Joxemiel nolakoa zen oso ondo deskribatzen du Pilarrek. Esaldi batekin bukatzen du: handikeriak ez zitzaizkiola batere gustatzen. Pilar baino hobeto ez zuen inor ezagutu On Joxemiel”.

ikusten dute belarra kablez nola botatzen den baina San Gregorioko eta San Martino umeez ez dakite hori zer den. Eskoletako andereño askok esaten digute, umeei oilaskoa margotzeko esan eta harategian, zintzilik, lumarik gabe margotzen dutela, azpian Oikina idatzita.

Hemen bizi garenontzat horrek ezinezkoa ematen du, baina denbora abiadura handian doa eta gauza horiek galtzen ari dira”, azpimarratu dute Sastarri Lan Taldekoek.

### Bigarren fasean

Prozesu guztia, grabazioa,

edizio, postprodukzioa... Sastarri Lan Taldea egiten ari da. Material profesionala erabiltzen dute lanerako.

Momentuz 8-10 minutuko dvd-ak prestatu dituzte, mutuak. “Orain, bigarren fasean gaude. Hau da, bertso-lariekin, esatariekin ari gara lanean, bideoei ahotsa sar-

tzeko. Batzuetan, hitzak bertso estiloan sartuko ditugu, beste batzuetan esatariekin, ditugun ahotsekin nahasketa bat ere egin nahi dugu”, zehaztu dute.

Horretarako, taldea handitzeko asmoa daukate, “bakoitzak bere jakinduriarekin lana osatzeko”, diote. Aldi berean, “parte hartu eta partaide sentitu, hori da lortu nahi duguna. Partaide sentitzearekin batera, jendeak ardura sentitzea gai hauen inguruan. Kezka bat sortarazi eta egin beharreko lana dela ikusarazi. Hemen ikusten dugu, jende gazte bat proiektu honetara inguratzen baldin badugu, geroa begira, gazte horrek ere helduko diola, guk baino gaitasun gehiago izango dute”, gaineratu du Arzak.

Hizkuntzari lotutako beste aberastasun bat ere ari dira biltzen Sastarrikoak: kontatzaileen hitz egiteko era, joskera, lexikoa... hori guztia bildu eta aztertzeko asmoa bai baitaukate. “Kontatzaile onak baitauzkagu”, diote.

### Bideo didaktikoak

Horrekin guztiarekin batera, irakaskuntzari begira, bideo didaktikoak sortzeko asmoa ere badute Sastarrikoek. “Oraindik ezin dugu izenik aurreratu, baina didaktika munduan punta-puntan dabilen talde batekin harremanetan gaude, Ikastoletan-eta adibidez, kablearen gaia sartzeko. Cd-room-ak sortu nahi ditugu, ariketak planteatuz. Tresneriaren izenak, lehen nola lan egiten zuten, zer erabiltzen zuten...”. Cd-roomak ere Sastarri taldekoek sortuko lituzkete.

### Udalaren jarrera

Proiektua azaltzeko eta dvd-ak herritarrengana ahalik eta era eraginkorrean iristeko, Sastarri Elkarteak Ataungo Udalarekin harremanetan jarri dira. Sastarrikoak dena den, ez daude oso gustura Udalak izanda-



ko jarrerarekin. Txema Zubizarretak argitu duenez, “gure lanagatik xentimorik ez dugu kobratzen, jarri egiten dugu. Dena guk jarri dugu orain arte. Ez dugu ezer kobratu eta ez gara inora joan ezer eskatzera. 2006 urtearen bukaeran, Ataungo udalarekin egin genuen bilera eta horrelakoxe erantzuna jaso genuen. Proiektu hau merkantzia bezala tratatzen zuten. Proiektu hau, gure kulturaren inbertsioa da. Nire ustez folklorea eta kultura nahastzen zituzten. Zenbat kopia saldu-eta aritu ziren. Baina gu ez gara salketaz hitz egiten ari. Agian herriari dohai-nik eman behar zaio, ala ez. Niri mina eman zidana zera izan zen: denok dakigu zein egoera politikotan gauden, Ataunen partidu bat bakarririk dago, Herrigintza izena duena. Beraieitargintza eduki behar luke izena. Arazoa ez da zer planteatzen den, nork planteatzen duen baizik. Eta adibideak hor dau-de. Dena dirua da udaletxe-ko ordezkarietzat eta hori errorea da. Herri honek horrela pentsatu izan balu, ez zen ezer eraikiko; ez Ikastolarik, ez ezer. Hizkuntza ere ez zen mantenduko”, gaineratu dute.

### Proiektu osoa

Ataungo Udalak belar-kla-bearen dvd-a erosteko nahia azaldu zuen Sastarrikoek adierazi dutenez. “Baina ez; proiektua da, proiektu oso bat. Hau ez da Top Manta. Osotasun bat da eta horren bila goaz. Proiektu bat da eta proiektu honek borobiltasuna behar du. Proiektuan sinisten duzu ala ez. Pobrea izatea edozeini suerta dakioke, miserable

## Proiektu hau gure kulturaren inbertsioa da.

izatea bakoitzak norberak aukeratzen du. Eta eskaintza hori egon da”, diote haserre eta minduta.

Dena den, Udalaren laguntzarekin ala gabe, aurrera egiteko asmo sendoa azaldu dute Sastarrikoek, dirua euren poltsikotik jarri behar badute ere. “Lehenengo ezinbestekoa zen udalak babestea, herriko lana delako. Baina beste ate batzuk ere ari gara jotzen, babesle bila. GOIERRITARRA aldizkaria ere aprobetxatu nahi dugu, zertan ari garen jakinarai eta era batera edo bestera parte hartzeko aukera baitago. Gu prest gaudete hitz egiteko. Argi duguna gauza bat da: proiektu hau aurrera aterako dugula, gure poltsikotik jarri behar baldin badugu ere. Denborak, bakoitza bere lekuan jarriko du. Leku txarrean ez gaitu utziko”.

Azkenik, Ataunek herri artxiboa izan dezan ere lan egiteko asmoa dauka Sastarri. “Momentuan Joxemiel etxean dago, baina hortik aparte, herri artxiboa eduki behar du herri honek. Batez ere hor dabilen materiala biltzeko eta bestetik, kezka sortzeko. Jasotzea komeni den gauza asko daude, eta jaso beharrezkoak direnak. Etxeetan beti egoten da dokumenturen bat bere balorea daukana”, adierazi du Ramon Arzak.

## Altxor txikiak



Altxor txiki ugari dituzte bilduak dagoeneko Txema Zubizarretak eta Ramon Arzak. “Orain da garaia biltzeko, urte gutxian galdu egin baitaiteke”, diote. Bilduma osatzen ari dira poliki-poliki: belarra kable bidez botatzen, txerria etxean hil eta odolkiak, txorixoak... egiten, baserritar batzuk oraindik nola bizi diren ganaduari beraiek eskuz azpiak ateraz, etxean eta fabrian gazta nola egiten zuten, simaurrak ateratzen, aureskua nola egiten zuten auzotarek, estraperlo garaiak...

### Belar-kablea

Ataunek duen orografiatik, belar-kablea

oso garrantzitsuak izan da herrian, belarra, ikatza ala egurra baserriraino jaisteko. Lanbide horren testigantza jaso zuten Aian bertan, 2006ko maiatzan. “Suitzan ikusi eta ekarritakoa omen da belar kablea. Hemen, inguruotan, Ataungo jendea izan zen ospetsua kableetan. Igeldoko ‘Montaña suiza’-ren kablea Ataungo baserritar batek konpontzen omen zuen”, zehaztu dute.

1990etik aurrera hainbat festa ere grabatuta dituzte. “Hartzen ari zaren garaian, daukan balorea dauka, baina gero 15-20 urtera ikusita, gauzak nola aldatu diren ikusten da”.

Urrutiagoko kontuetara joaz, 1901 eta 1906ko dokumentuak ere bildu dituzte: “San Martingo dokumentu bat, famili bakoitzak zenbateko kanona pasatzen zien elizari”.

### Beilatan egitea

Adibide asko dituzte Arzak eta Zubizarretak eta horietako bat, duela 60 bat urte galdu zen jolas baten berri eman digute: beilatan. “Mutilak nesken etxera joan ziren gauean, gurasoak lo zeudela. Sukaldean biltzen omen ziren eta poxpoloarekin jolas egiten zuten nori itzaltzen ote zitzaien. Hari agindua edo prenda jarriko zioten: halakori muxu eman... Horrela harremanak sortzen ziren eta ezkondu egiten ziren. Ohitura hori galdu zenetik, Aian, askoz ere jende gutxiago ezkondu dela esaten da”.

# ARRIETA

## JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...

era guztietako ospakizunak

☎ 943 88 00 02

**OLABERRIA**



## Unai Urkia eta Olain Irizar:

*"Pazientzia baino  
gehiago, erreka  
irakurtzen jakin  
behar da,  
amuarrairak non  
egon litezkeen  
konturatu"*

**O**lain Irizar lazkaotarrak eta Unai Urkia idiazabaldarrak arrantza dute zaletasun. Amuarrairak hil gabe egiten dute arrantza, kanabera, amu eta teknika bereziak erabiliaz. Urtero

hainbat lehiaketetan parte hartzen dute, horretarako entrenamendu ugari egin behar izaten dute, arrantzarako amuak pres-tatzen ere lan handia izaten dute... Azken finean, erreka eta ibaietako adituak dira.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN



**ZEGAMA**  
**OKINDEGIA**  
*Eskuz egindako ogi naturala*  
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

**SALMENTA PUNTUAK:**

**Beasain:** Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Aurtengo denboraldia urtarilaren 27an hastekoak babaziren ere, elurteak direla eta, otsail bukaera arte ez dira estreinatuko. Lehiaketak oso goiz hasiko direla eta, hilabete baino gehiago da entrenatzen hasi zirela. Espainiako txapelketa ekainean dute eta aurretik goi lehiaketako selekzioak egiten dituzte, tartean daude Gipuzkoako txapelketa, Euskadikoa, Klub-en artekoak...

**Orain hasten duzue denboraldia. Zein duzue helburua?**

**Olain:** Hasteko Espainiako txapelketetan sartzea.

**Unai:** Horrek esan nahiko luke Euskadiko goi lehiaketako taldean sartu garela eta hurrengo urtean berriro aurkezteko aukera ziurtatzen dugu.

**Zein lehiaketarekin hasiko duzue urtea?**

**Unai:** Lehenengo goi lehiaketako saioak hasten dira. Horretarako aurreko urtean Gipuzkoako txapelketa jokatu behar da, han Euskadikorako sailakatu eta Euskadiko txapelketan lehen 18 sailkatuetan sartzen direnek jokatzeko dute goi lehiaketa. 18 hauetatik 9 lehenak Espainiako txapelketara joaten dira, 11-k mailari eusten diote eta 7 mailaz jaisten dira.

**Olain:** Iaz biok joan ginen Espainiako txapelketara, beraz, aurtengo mailari eutsi diogu. 4 egunetan izaten dira lehiaketak, lehen biak arrantza denboraldia, martxoak 19, hasi baino lehen izaten dira. Orain, beda itxita dagoenez, kotoetan aritzen gara arrantzan.

**Unai:** Leizaran eta Araxes ibaietan hainbat eremutan amuarrainak askatzen dituzte eta ordainduta arrantza egin dezakezu. 2 edo 3 amuarrain bakarrik eraman daitezke baina ortzadar amuarrain motakoak, erre-kako amuarrainik ezin liteke eraman, berriro ere askatu egin behar dira.



**Desberdintasunik ba al dago askatutako amuarrainak eta erreka berta-koak arrantzatzerakoan?**

**Unai:** Alde handia dago bai. Arrantza egiteko modua erabat desberdina da. Askatutakoa askoz ere errazagoa da harrapatzen, zu ikusita ere ez du alde egiten, pixka bat aldenduko da baina ez da ikaritzen. Errekakoa beste goxotasun batekin arrantzatu behar da. Aukera gutxi ematen du, normalean bakarra ematen du eta ez baduzu aprobeztatzen ahaztu berataz. Besteak ura garbia badago ikusi egiten dituzu eta behin eta berriz saiatu zaitezke.

**Lehiaketetan zer hartzen da kontutan?**

**Olain:** Dena: amuarrain kopurua, hauen neurria eta pisua. Neurriaren arabera taula batzuen bidez kalkulatu da pisua, ez dira amuarrainak pisatzen. Kopuruaren, neurriaren eta pisuaren arabera puntuazio bat ematen dizute. Osa zaila da bai-

na gertatu izan da amuarrain gutxiago arrantzatu dituen batek lehiaketa irabaztea, handiagoak direlako.

**Nolakoak izaten dira lehiaketak?**

**Unai:** Erreka hainbat tartetan banatzen da. Adibidez, 18 arrantzale bagaude 9 zaitan eta bakoitzean bik arrantza egiten dute. Goizean batek egiten du arrantza eta besteak zaindu egiten du, epaile lana eginez. Arratsaldean, berriz, alderantziz egiten dute. Oraingo lehiaketak ordu t'erdikoak dira eta aurrerago bi ordukoak egiten dira.

**Olain:** Lehenago amuarrainak hil egiten ziren, baina gaur egun ez. Izan ere lehiaketa bat egiten zenean errekan ikaragarriko txiki-zioak egiten ziren.

**Beraz, ez duzue amuarrainik hiltzen.**

**Olain:** Gu urte guztian ari gara arrantzan eta behar bada ez dugu amuarrain bakar bat etxera eramaten.

**Unai:** Errekakoa behintzat,

ezta pentsatu ere, hori erlikia bat bezala da guretzat. Tarteka konpromisoren bat edo izaten dugu baina, bestela ez dugu amuarrainik eramaten.

**Olain:** Urte guztia arrantzan pasatzen dugu, ordu pila bat sartzen dugu eta konturatzen gara errekarara joan eta geroz eta amuarrain gutxiago dagoela. Hori zergatik izaten da? Harrapatu eta ez askatu, ba azkenean bukatu egiten direla.

**Unai:** Geroz eta arrain gutxiago, geroz eta arrantzale gutxiago.

**Olain:** Ni mutikoa nintze-nean arrantza debekaldia bukatzen zenean errekek jendez beteta egoten ziren. Gaur egun joaten zara eta ez da inor egoten. Amuarrain gutxi dago eta jendea-ri zaletasuna piztu beharrean kendu egiten zaio, eta gatzetxoei zer esanik ez.

**Ingurumenak arduratzen zaituzte beraz?**

**Unai:** Txapelketetan ibiltzen garenok jakin beharra daukagu, errekan ze bizitza dagoen, arrainak zer jaten duen... Gustatzen zaigulako aritzen gara.

**Pazientzi handia behar al da amuarrainak arrantzatzeko?**

**Olain:** Nik uste dut, pazientzia baino gehiago, erreka

**Tarteka konpromisoren bat edo izaten dugu baina, bestela ez dugu amuarrainik eramaten.**

# Eltxoak eta latigoa

‘Latigo’ delakoa arrantza egiteko modu bat da: pita lodia-gotik estuagora joaten da eta puntan eltxoa eramaten du, horrekin latigoaren efektua eginez, kanaberak ere oso bigunak dira horretarako.


Heriotzarik gabeko arrantza egiten dute, hau da: amuarra harrapatu eta berriro ere askatu. Modalitate honetan arpoirik gabeko amuak erabiltzen dituzte, okertutako orratza balitz bezala. Arpoia duen amuak heriotza dakar, eta modalitate honetako txapelketa guztietan, heriotzarik gabe direnez, orratz moduko amua exijitzen dute. Horrek duen arriskua da, pixka bat destentsatuz gero, orratza bezala sartu eta atera egiten dela eta arrainak alde egin. Hori ez gertatzeko kanaberak bereziak izaten dira, oso bigunak, eta tira egin edo lasaitzean ez dio askatzeko astirik ematen. “Jendea ohituta dagoenerako oso amu txikiak dira, ikusi eta harrituta geratzeko modukoak”, argitu du Olainek.

Arrantzaleek behin modalitate hau probatzen dutenean ez dira ohiko arrantza modura itzultzen. Unai bizi guztia aritu da arrantzan eta orain dela 12-13 urte hasi zen latigo-arekin: “Hori sartu egiten da, engantxatu egiten du”. Olain, berriz, 8 urterekin hasi zen eta harrezkero horretan ari da.

## Eltxoak egin behar

Beraiek egiten dituzte eltxoak eta hori arrantzatik aparteko lana dute. Errekan egoten diren, eulien, eltxoen edo xomorren kopiak egiten dituzte. Hau da, amuarrainen janaria dena imitatu egiten dute. Larba direnetik eltxo izan arera intsektuen garai guztiak ahal den berdinean egiten dituzte. Eltxoak ahal den egokien egin behar badira ere, askotan benetakoaren berdina izatea ez da garrantzitsuena izaten. “Bai, askotan gertatzen da, eltxo berri bat botatzen duzu eta amuarrainak ez dio kasurik ere egiten, beste hainbatekin proba egin eta ez die heltzen. Jartzen duzu amuarrain mordo bat harrapatu duten eltxoa, itxuraz oso hondatua dagoena, eta amuarrainak heldu egiten dio. Zergatik den hori? Ez dakigu, baina, askotan gertatzen da hori”, azaldu du Irizarrek.

Eltxo horiek egiteko mota guztieako materialak erabiltzen dituzte. “Pentsatu dezakezen guztia. Animalien ilea, txorien lumak... Askok erabiltzen dugu oilarren luma eta batez ere Leongo oilarrarena, dizdira berezia baitute”, dio



Unai. Lanerako gai asko garestiak izaten dira, adibidez: dizdiratsua izateko zetazko hariak erabiltzen dituzte. Eltxoak egiten, hasieran denbora asko behar bazuten ere, denborarekin eskua hartu die eta beraiek egiten dituzte beti. Lehengaiak garestiak direla kontutan harturik, egindako eltxoak erostea oso garestia baita arrantzaleentzat.

Arrantzan, beste edozein kiroletan bezala, goi mailan aritzeko, ordu asko sartu behar da: entrenamenduak, lehiaketak, eltxoak egiten... Txapelketen aurretik, eltxo asko egin eta probatzen dituzte, egokiak zein diren ikusi eta gero, halako gehiago egiteko. Olainek azaldu duenez, “azken finean konfidantzazko amua duzu eta harekin aritzen zara, baina txapelketa batean amuarraina ikusi eta ez badizu fuzionatzen beste batekin saiatzen zara”. Amua bera baino garrantzitsuagoa da nola arrantza egiten den, “amuarrainarengana nola joaten zaren, nola ‘aurkezten’ zaren, hori da arrakastaren %70a. Amuarrainari eltxoa ondo edo naturaltasunez iristen bazaio, nahiz eta artifiziala izan, heldu egingo dio” dio Olainek. “Amuarrainak zerbait arraroa ikusten badu alde egingo du” gehitu du Unai.

Ordu asko eskatzen duen zaletasuna bada era ez dago arrantzatik bizi den jende asko. “Daudenek denda bat, edo arrantzarekin lotutako zerbait osagarria dute. –dio Urkiak– Batzuk eltxoak montatu eta saltzera ere dedikatzen dira, baina lehiaketetatik bakarrik bizitzea ezinezkoa da”.

irakurtzen jakin behar dela, amuarrainak non egon litezkeen konturatu. Ura garde-na dagoenean ikus litezke, baina arrea dagoenean ez da ezer ikusten eta jakin egin behar da. Dena dela, hemengo errekek txikiak dira, Katalunian, Aragoin edo Leonen askoz ere erreka zabalagoak dira eta irakurtzen zailagoak dira, amuarraina gutxi gora behera zein jarretan egoten den jakin behar duzu.

**Unai:** Eta amuarrainik ez dagoen lekuan alfer-alferrik ari zara. Amuarraina egoten

den lekua ez da beti berdina izaten, errekan arabera asko aldatzen da.

**Olain:** Bai, eta uraren tenperaturaren arabera ere asko aldatzen da. Hotzarekin, ahalegin gutxiago egiteko behera jaisten dira eta behe- ran daudenean konkretuki non egoten diren ikastea da zailena. Hori ordu asko sartuz ikasten da.

**Unai:** Kolore desberdineta-ko pitak erabiltzen ditugu, non dagoen eta noiz heltzen dion ikusteko. Ura arrea dagoenean ez da ikusten noiz heltzen dion eta pi-

tari begiratura nabaritu behar dugu.

**Olain:** Amuak arpoirik ez duenez, heltzen dionetik askatzen duenera, oso denbora gutxi izaten dugu tira egiteko, segundo bat gehienez.

**Unai:** Askatutako amuarrainarekin beti ere denbora gehixeago izaten da, emandako janaria jaten ohituta egoten baitira. Ahoan hartu eta jatekoa ez dela konturatu arte pixka batean edukiko du, baina, erreka-ko amuarrainak hartu orduko askatzen du. Gainera erabiltzen dugun pita oso-oso

mehea da, eskuarekin tira eginda erraz puskatzen da eta edozein adarretan edo trabatuz gero zer esanik ez.

**Olain:** Gero tira egin eta ezin dugu edonora kanpora atera. Hartzeko sare berezia izaten dugu eta lehiaketetan ezin dugu eskuarekin amuarrainik ikutu, hori epaileak egiten du.

**Nola hasi zineten arrantz-  
tzan?**

**Olain:** Txiki-txikitan hasi nintzen, Juanjo Sanz lazkaotarra izan nuen maisu. Bera lau mundialetan egondakoa da. 7-8 urterekin hartu nin-



duen eta berarekin ikasi nuen dena.

**Unai:** Ni nirekasa hasi nintzen eta denbora gehiago behar izan dut ikasteko. Ni beti xixarearekin aritzen nintzen eta Idiazabalgo batek esan zidan eltxoarekin arrantza egin beharko nuela. Ez nekien ez nolako kainaberak ziren eta ez ezer. Hark prestatu zizkidan eltxo batzuk eta pixkanaka probak eginez hasi nintzen. Hasieran etxean eskuz egin...

**Zaldibiako Arrantza Eskolak lagunduko al du arrantzale berriak sortzen?**

**Olain:** Espero dugu baietz, ea zaletasuna sortzen duen. Gaur egun gazterik ez da arrantzan ikusten eta guk gustura erakutsiko genieke, etorkizun pixka bat izateko. Ikastea kostatu egiten da eta hasieran etsi egiten duzu.

**Unai:** Guk egiten dugun arrantza mota ez da kaina-bera bota eta egotea. Gu errekan ibili egiten gara, ez gara geldi egoten. Hori da polita: errekan ibiltzen ikasten duzu, amuarrainak nondik alde egiten duten ikusi...

**Elkarteren batean al zaudete?**

**Olain:** Bai, Beasaingo Aizorrotz elkartean gaude. Unai aurten sartu da.

**Unai:** Orain arte Idiazabalgo Otsa elkartean nengoen eta gutxi ginenez, lehiaketetara joateko taldea izatea-



## Itsasoa ere bai

Errekan bakarrik ez, tarteka itsasoa arrantza egitea ere gustoko dute. Batez ere Olain da horretan aditua: "Errekan txapelketetan aritzen naiz, baina itsasoa zaletasun hutsez. Ez dute bata bestearekin zer ikusirik, zuritik beltzera aldatzen da". Hasieran itsasontzian zorabiatu egiten bazen ere, "zaletasunak indar gehiago izan zuen". Unai, berriz, itsasertzean aritzen da, "barrura eramaten banaute joaten naiz, bestela kostatik aritzen naiz".

rran Aizorrotzen eman nuen izena. Biok ibiltzen ginen elkarrekin eta inguruan ere beste hainbat badagoenez, Espainiako elkarte arteko txapelketara joateko aukera ematen digu honek.

**Zenbat aldiz izan zarete Espainiako txapelketan?**

**Unai:** Azken 4 urteetan 3 aldiz izan gara.

**Eta hor aurrean ibiltzea zaila al da?**

**Olain:** Espainiako txapelketan gu ibiltzen garen bezala, lehengo 30-etan sartu eta hortik aurrera egiteko suertepixka bat behar da. Erreka eremuak zozketatu egiten dira eta segun zein suertetadon zaizun, edo goizean, edo arratsaldean arrantza

egin behar duzun asko aldatzen da arrantza egiteko aukera. Hor goian ibiltzeko, arrantzan ondo egiteaz gain, zortea ere behar da.

**Unai:** Nahikoa da bi ordu txarrak izatea txapelketa guztia pikutara joateko.

**Olain:** Gero konpondu dezakezu, baina 30. egiteko, ez irabazteko.

**Unai:** Espainiako txapelketako lehen 10ak Munduko txapelketarako sailkatzen dira eta Espainiako goi lehiaketako taldean sartzen dira. Eta Olainek esan duen bezala, hor zorteak zer ikusi handia du.

**Olain:** Iaz, adibidez, Espainiako txapelketa Katalunian egin zen, bi erreketan. Eta kasualitatez, batean presako ura askatu zuten. Hori kasualitate handia da, baina, gerta liteke.

**Zein erreka mota gustatzen zaizue?**

**Unai:** Niri geroz eta gehiago erreka txikiak gustatzen zaizkit: Ataungoa, Lizartza-koa...

**Olain:** Azken finean beti horrelako erreketan ibili gara eta horiek dominatzen ditugu. Ez gaude erreka handietan arrantza egitera ohituta. Erreka txikia errazagoa da irakurtzeko, leku gutxiago ditu begiratzeko. Hasieran erreka handietan galduta ibiltzen ginen. Kanpora asko atera gara, Bidasoara askotan joaten gara eta erreka handietara ere ari gara ohitzen.

## ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,  
engrasea

Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



Tel. eta Faxa: 943 886 558  
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42  
LAZKAO

toldosagustin.com  
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

**iñAUSTI** N-1 errepidea  
lurre auzoa  
**KARROZERIA** OLABERRIA  
☎ 943 88 43 01

# Beasaingo idazlan lehiaketako irabazleak

Otsailaren 3an egin zen Beasaingo Udaltxeko Batzar Aretoan, XVII. Beasain idazlehiaketako sari-ematea. Sariak, Gipuzkoa/Donostia Kutxak finantzatu ditu eta saritutako idazlanak Udaleko Euskara-batzordeak argitaratuko ditu. 5 mailatan banatuta, 40 sari eman dituzte. Idazlehiaketa honek arima izan den Andoni Sarriegiren tzat, erretiroaren atarian, agur hitzak izan ziren.

**A Maila** (1989 eta 1990 urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean)

**Olerkian**

**1. saria:** Hutsik. **2. saria:** Unai Benito Elustondo, 'Marinelaren maitasun abestia'. **3. saria:** Eneritz Zabaleta Merino, 'Ahots isila'. **Aipamen-sariak:** Aitziber Saldias Torquemada, 'Negar malkotan bihotza'. Amaia Martinez Fernandez, 'Urrats bat'.

**Hitz lauz:**

**1. Saria:** Eñaut Agirre Iturriotz, 'Fraternite, egalite, liberte'. **2. Saria:** Naroa

Garmendia Salinas, 'Maite zaitudalako'. **3. Saria:** Itxaso Munarriz Aramendi, 'Itsaso berrien bila dabilen marinela'. **Aipamen-sariak:** Maddi Murua Sarriegi, 'Azken segundoak xahutzen'. Iñaki Iparragirre Areitio, 'Kanpairik gabeko kanpandorrea'. Amaia Fajardo Galarreta, 'Zuhaitz gogoetak'. Eneritz Zabaleta Merino, 'Segundo bat'.



**B Maila** (1991 eta 1992 urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean)

**1. Saria:** Maialen Azurmendi Alvarez, 'Beltzez jantzitako atsoa'. **2. Saria:** Ainhoa Mujika Mendia, 'Gardena ere ikus daiteke'. **3. Saria:** Ainitze Royuela Mujika, 'Hainbat gogoeta'. **Aipamen-sariak:** Garazi Otegi Etxezarreta, 'Kati'. Endika Igartzabal Murua, 'Aberria ala atzerria?'. Maialen Idiakez Agirre, 'Don Manuel... telefonora!'. Mikel Zurutuza Rodriguez, 'Etorkizunaren egunerokoa'.



**D Maila** (1993 eta 1994. urteetan jaiotako eskualdeko ikasleen artean)

**1. Saria:** Sara Intsausti Gonzalez, 'Agian...'. **2. Saria:** Leire Albarran de la Cruz, 'Iragana tirokatuz'. **3. Saria:** Asier Insausti Gonzalez, 'Zergatik ni?'. **Aipamen-sariak:** Janire Garmendia Arrondo, 'Anaren bizitza'. Mara Goikoetxea Gereñu, 'Nitaz ahaztu al da?'. Aizpea Lasa Mujika, 'Bidaia-ria'. Maite Muñoz Larrea, 'Haurren jaiotza etxerako poza'. Mikel Etxeberria Arruabarrena, 'Plazako pinua'.





**E Maila** (1995. eta 1996. urteetan jaiotako ikasle beasaindarren artean)

**1. saria:** Amaia Garmendia Beraza, 'Pello eta artzaina'. **2. saria:** Janire Andola Gabilondo, 'Maria'. **3. saria:** Nora Jauregi Gerriko, 'Ixabel'. **Aipamen-sariak:** Ane Iturzaeta Agirre, 'Ezagutzea maitatzea da'. Nagore Perez Sarasua, 'Abizena izeneko neska'. Nerea Aizpuru Albisu, 'Hizkien mundua'. Ainhoa Lopez de Arregi Torquemada, 'Basoko lamia misterioitsua'.



**F Maila** (1997. eta 1998. urteetan jaiotako ikasle beasaindarren artean)

**1. Saria:** Asier Gorostegi Galarraga, 'Aitor eta "Laitz" txakurra'. **2. Saria:** Aratz Elizegi Irastortza, 'Hontza eta basasagua'. **3. Saria:** Itsaso Lasa Gonzalez, 'Mei-li'. **Aipamen-sariak:** Amaia Leunda Esnaola, 'Barraskiloa azalore batean'. Agustina Micaela Vazquez Miccieli, 'Baloi txuria'. Mikel Intsausti Murgiondo, 'Elurrezko panpina'. Brais Ebere Gonzalez, 'Mikel mendi'.



Garbiketa  
Zerbitzu  
Integrala

Enpresen mantentzea

Tel./Faxa: 943 188 194 Mug.: 696 999 117  
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL



LADA  
Ssang Yong

**ARANDIA**  
Garajea  
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre Auzoa  
OLABERRIA  
☎ 943 88 09 47



**SILVIA MIRAS CASASAYAS**  
ODONTOLOGOA  
KOL. Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

**berriz**

|               |                   |
|---------------|-------------------|
| AMAYA ARZUAGA | FRENCH CONNECTION |
| MIRIAN OCARIZ | DIESEL            |
| ISABEL MARANT | FOR ALL MANKIND   |
| PAUL & JOE    | ANTI-K BATIK      |
| HOSS          | EARL JEANS        |
| MISS SIXTY    | SCOOTER           |

BEASAIN

DONOSTIA

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak  
eta pastel ezin hobekak"**



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

## ETXEBIZITZAK

### salgai

**Ataun San Martinen** 60 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Estreinatze-ko. 160.000 eurotik aurrera. INMO F3 943164936 - 629417171.

**Seguran** kanpo aldera ematen duen 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalea eta 27 m<sup>2</sup>-ko garajea eta 18 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. 639962850.

**Beasainen**, erdigunean, berri-tutako apartamentu polita salgai. Sartzeko prest. 180.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

**Baserria** salgai Txindoki inguruko gunean. INMO F3 943164936 - 629417171.

**Baserriak** salgai Goierri aldean. INMO F3 943164936 - 629417171.

**Lazkaon** 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. 4 logela, 2 bainugela. Garajea. Bista paregabeak, oso toki onean. INMO F3 943164936 - 629417171.

**Beasainen**, Lizeo gunean, etxebizitza oso eguzkitsua salgai. 2 logela. Garajea aukeran. 234.395 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

**Ataun San Martinen** erabat berritutako 2 logelako pisua salgai. 167.682 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

**Beasainen**, kanpo aldera ematen duen 85 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Berogailua. Garajea. 252.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

**Legorretan**, erdigunean, etxebizitza salgai: 3 logela, 2 bainugela. Erabat berrituta. 228.385 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

## NEGOZIOAK

### errentan eman

**Urretxun pub-a** alokatzen da taberna gunean. 645717232.

## GARAJEAK

### salgai

**Donostiako Antiguon**, 7.500.000 pezetako garaje itxia salgai. 629878552.

## BESTELAKOAK

### salgai

**Sutarako** pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera en-tregatzen da.

**Sutarako** egurra, prestatuta, salgai. 699647192.

## AURKITUTAKOAK

**Labrador** motako bi txakur-kume agertu dira Ihurren, bi hilabete ingurukoak. Kolore beltzekoak; bat arra, bestea emea. Inork adoptatu nahi badiu, dei dezala Olaberriko Udaletxera. 943881434.

**Argazki-makina** digitala aurkitu da Atxurtzan. Jabeak deitu dezala telefono zerbaki honetara: 943720429.

## ANIMALIAK

### opari

**Hiru arratoi txakurkume** oparitzen dira. 630614924.

## IBILGAILUAK

### salgai

**Opel Astra** salgai. SS-AP. Garajejan gordea. 605766110.

## Goierritarrako iragarki laburrak:

**hitz bakoitzeko 0,63 euro.**

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da [www.goierrikohitza.info](http://www.goierrikohitza.info) webgunean.

**943 88 96 12**

[goierritarra@goierrikohitza.info](mailto:goierritarra@goierrikohitza.info)

[gh@goierrikohitza.info](mailto:gh@goierrikohitza.info)

## LANA

### eskaerak

**Cruz M. Nieves** ileapaindegian neska bat behar da. 943882784.

**Zerbitzaria** behar da Beasaingo taberna batean. 609531681.

**Abelzaintza** arlorako lana eskaintzen da. Baldintza ekonomiko onek eta etorkizunean negozioan parte hartzeko aukerarekin, kapitalik ezarri gabe. 635721541.

**Kamarera** behar da Ordizian. Gizarte segurantz, pagak eta oporrak. 687609093.

**Ordiziako kafetegi** batean, astelehenetik larunbatera, lan egiteko neska bat behar da. 943882793.

**Beasaingo** taberna batean zerbitzari euskalduna behar da. 629869668.

### eskaintzak

**Ekuadorreko** emakume batek umeak edota pertsona helduak zaintzen eta etxeko lanak egiten lan egingo luke. 630174103.

**Garbiketa lanak**, gaixoak eta adineko pertsonak zaindu eta edozein lanetarako prest nago. 678781985.

**Mutila** prest dago edozer jardueretarako edo baserrirako, erreferentzia eta esperientziaduna. 648720748.

**Emakumea** etxeko lanak egiteko edota adineko pertsonak zaintzeko prest. 652701620.



**Tximela**

Eraikuntza Makineria Alogeran • Beasaingo ordezkaria

Beasainerako pertsona bat bilatzen ari gara. Lanpostua:

**MAKINERIAREN**

**GARBIKETA eta DOIKUNTZA**

### EGINKIZUNAK:

- Eraikuntza eta Herri-lanetarako Makineriaren garbiketa eta prestaketa.

### BETEBEHARRAK:

- Lanerako jarrera eta prestasuna. Ez da beharrezkoa lanbide-heziketa.

### ESKANTZEN DA:

- Etorkizuneko egonkortasunaren bermea.
- Ordainketa hautagaiaren balioaren arabera.

Interesatuak Curriculum TXIMELA, S.A. 17 Posta Kutxatila -20115 ASTIGARRAGA bidali, edo-la Telf. 943 335 991 ra dei dezakete.

**ASTIGARRAGA**  
943 332 300

**BEASAIN**  
943 161 111

**BERGARA**  
943 760 505

**Goierritarra**

943 16 00 56 [goierritarra@goierrikohitza.info](mailto:goierritarra@goierrikohitza.info)






**ARGI**  
O P T I K A



E W M E

zure ikusmena zainduz  
zure estetikaren oinarrizko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 [www.argioptika.com](http://www.argioptika.com)



## BEASAINGO HEZKUNTZA PUBLIKOA

**MURUMENDI**  
Eskola Publikoa



Mariarats, 1-3  
20200 Beasain  
Tfnoa.: 943 88 00 25  
Faxa: 943 88 49 29

[www.murumendi.org](http://www.murumendi.org)

**LOINAZPE**  
Institutu Publikoa



Igartza-Oleta, 14  
20200 Beasain  
Tfnoa.: 943 88 26 44  
Faxa: 943 88 49 37

[www.loinazpe.net](http://www.loinazpe.net)

**ALKARTASUNA**  
LIZEOA  
Herri Ikastola



Foru, 8  
20200 Beasain  
Tfnoa.: 943 88 26 84  
Faxa: 943 88 1871

[www.alkartasunalizeoa.net](http://www.alkartasunalizeoa.net)

**TXINDOKI -**  
**ALKARTASUNA**  
Institutua



Ugartemendi, 6  
20200 Beasain  
Tfnoa.: 943 88 07 53  
Faxa: 943 16 10 48

[www.txindokialkartasuna.net](http://www.txindokialkartasuna.net)



### Santa Ageda Ormaiztegin 1932 urtean

Ander Iurritak utzi digun argazkia Ormaiztegin ateratakoea da 1932.urte inguruan. Bertan herriko gazte taldea ageri da Santa Ageda eskean dabilela.

**Atzean, ezkerretik eskuinera:** Joseba Ezkurdia, Alejandro Irizar Urkiola, Jose Angel Zufiaurre (Igara) eta Joxe-Txiki (Mantzisidor-en anai ordekoa).

**Aurrean, ezkerretik eskuinera:** Patxi Elorza Aierbe, Modesto Kanpos, Juan Manuel Mujika (Etxaburu), Floro Irizar Salazar, Alberto Irizar Salazar eta Martzelino Peñagarikano.

**Ikaskide**  
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5  
Beasain

943 160 120  
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA  
INFORMATIKA  
INGELERA  
IKASKETA TEKNIKAK  
UNIBERTSITATE-MAILA



**GERTU**

Inmobiliaria

www.inmogertu.com

San Inazio, 5  
20200 BEASAIN  
Telf: 943 16 21 92  
Fax: 943 88 36 33

**over** Urraki  
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es



**Sagardoa  
txotxetik**

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



# Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018  
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

**K**analoiak

**B**ajanteak

**F**atxadak

**P**intura

**T**eilatua

**T**ximiniak


...

A large photograph of the Barandiaran Zeramikak storefront at night. The building is illuminated with warm lights, and the large neon signs for 'BARANDIARAN' and 'zeramikak' are prominent. Below the main signs, smaller signs indicate services like 'ERREF. MAK', 'DISEINUAK', 'PROIEKTUAK', 'BAINUAK', and 'HIDROMASAJA'. The entrance is visible with glass doors and windows showing the interior.

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN  
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com







Elbarrena industrialdea

**Zaldibia**

Tel.: 943 888 232

herrietako jaiak  
despedidak

Gipuzkoako mozorro dendarik handiena

